

NOLAKO JATORRIA, HALAKO BIZIMODUA?

Aukera berdinak guztiontzako, hori da ekitatearen funtsa. Errealitatea, ordea, bestelakoa dela badakigu, jatorriak edo sorlekuak berak bizimodu baten nolakoa baldintzatu dezakeelarik. Oinarrizko gabeziak dituen herrialde edo familia batean jaiotako umearen etorkizuna eta bestelako egoera batean jaiotako umearena, ezberdinak izango dira akaso.

Urrutiko eta gertuagoko hainbat egoera aztertu ditzagun:

ELIKADURA OINARRIZKOA DA EDONORENTZAKO...



<http://www.fao.org/hunger/es/>

Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundeak plazaraturiko datuetan erreparatu eta honako galderei erantzun:

Datuen arabera, zein kontinenteetan daude gaizki elikaturiko populazioa %35etik gorakoa duteneko herrialde gehien?

Non daude gaizki elikaturiko pertsona gehiago, Nigerian ala Namibian?

Indian bakarrik, zenbat biztanle daude ondo elikatu ezinda?

DAGOENAREN BANAKETA ERE GARRANTZITSUA DA...

Herrialde bakoitzaren barruan ere desorekak ematen dira, hauek kasu batzuetan nabarmenagoak direlarik. Ikus Gini indizearen arabeko egoera (0= guztizko ekitatea, 100= ekitatetik guztiz aldentuta) eta honako galderei erantzun:

<http://www.indexmundi.com/es/datos/indicadores/SI.POV.GINI/compare#country=xu>



Zeinek dauka Gini indize altuagoa, Ameriketako Estatu Batuak ala Indiak? Zer esan nahi du horrek?

Espainiako kasuari erreparatuz, zein bilakaera islatzen da 2007-2010 urteetan? Zergatik izango da?

Euskal Herrian bizi garen guztion egoera ere ez da berdina, eta zailtasunei aurre egiteko aukerak ere, hainbat ezaugarrien arabera, handiagoak edo txikiagoak izango dira.

LANGABEZIA EAE-n (%tan)	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Orokorra	6,2	6,6	11,3	10,7	12,4	15,6	16,6
Estatuko biztanleak	5,5	5,8	10,1	9,5	11,0	13,7	14,9
Atzerritarrak	16,4	16,3	24,9	22,4	26,8	37,0	37,6
Europar Batasuneko biztanleak	12,7	17,7	24,5	17,0	17,2	19,4	32,3
EBtik kanpoko biztanleak	18,9	15,7	25,1	23,5	29,3	41,5	39,0
EAE-ko ETXEAK (%tan)	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Ezin da joan urtean astebete oporretara	21,1	15,8	22,1	21,1	27,4	23,5	26,0
Ezin du bi egunez behin haragi, oilasko edo arrainik jan	0,6	1,7	1,7	0,9	3,5	2,6	1,9
Ezin die aurre egin ezohiko gastuei	21,1	17,7	22,2	19,8	23,4	19,8	24,2
Bizilekuaren ordainketan atzerapenak izan ditu azkeneko urtean zehar	4,6	3,5	2,5	3,3	5,2	3,2	5,0
Ezin du kotxerik izan	5,0	4,9	3,2	4,4	4,2	3,2	5,3
Ezin du ordenagailurik izan	3,3	4,7	4,2	4,3	4,1	1,8	4,9

Zein giza taldean eman da langabezia minimo eta maximoaren arteko alderik handiena? Zeinean gutxiena? Zer adierazten du horrek?

Zure ustetan, bertako biztanleek eta kanpotik etorritakoek aukerak berdinak al dituzte lana eskuratzeko? Eta, orokorrean, lanpostuaren ezaugarrietan ezberdintasunik egongo dela uste duzu? Bidezkoa al da?

Iturria: FOESSA fundazioa

Hona hemen azkenaldian plazaraturiko berriaren aipamen batzuk (Gipuzkoako Hitza)

BOST ETXETIK BAT, POBREZIA ENERGETIKOAREN ARRISKUAN

<http://gipuzkoa.hitza.eus/2015/11/13/bost-etxetik-bat-pobrezia-energetikoaren-arriskuan/>

“Zerbitzu energetikoak lortzeko gehiegi ordaintzea, edo haiek ordaintzeko gaitasunik eza”. Hala laburbildu du pobrezia energetikoa Beatriz Martikorena Gipuzkoako Foru Aldundiko Energia Saileko arduradun teknikoak. Egia-Kareaga fundazioak egindako ikerketa baten arabera, zaugarritasun energetikoan daude Gipuzkoako etxeen %19,2, eta horietatik %12,3k pobrezia energetikoa pairatzen dute.

Zerbitzu energetikoak ordaintzeko zailtasunak dituztenak dira pobrezia energetikoa pairatzen dutenak, gipuzkoarren %12,3.

Urteko hilabeterik hotzenetan 18 graduko tenperatura mantendu ezin dutenak zaugarritasun energetikoaren muga kokatzen dira. Etxebizitzen %8,5 daude egoera horretan. Profil ezberdineko jendea dago pobrezia energetikoak jota, baina bost talde nabarmentzen dira. Emakumezkoak, familia monoparentalak, 65 urtetik gorakoak, etorkinak eta langabezia denbora asko daramatenak izan ohi dira zailtasun gehien dutenak.

JASOTAKO INFORMAZIOA LAGUN, TALDEKA EZTABAIDATU ETA ONDORIOAK ATERA:

Adina, jatorria, arraza, erlijioa, generoa, gabezi fisiko eta psikologikoak... Ezaugarri horiek gure herrian bizi diren biztanleen bizi kalitatea baldintzatzen duten ezaugarriak direla uste duzu? Zergatik? Nola konpondu daiteke?

Gure herrian, adina, jatorria, arraza, erlijioa, generoa, gabezi fisiko edo psikologikoak direla eta, bazterketa pairatzen duten biztanleak daudela uste al duzu? Nortzuk? Nola konpondu daiteke?